
MATRICI TXORIERRIN DAGO, BIZKAIAN

MATRICI autogintzarako trokelak egiten dauzan baltzua da. Bosteun ta berrogeita amar beargin daukaz. Kooperatibea da eta bertako beargin eta bazkide dozu becan izenpetuten dauan idazle au. Euskera plangintzea indarrean dogu bertan eta onako idazki-eskabide au eldu eragin deutset baltzuko euskera arduradunai, bertan esaten dana kontuan euki daien:

"Bizkaiko euskaldun askok uste izan dau eurok darabilen euskereak ez dauala ezertarako balio. Eritxi oker ori ez da gaur egunekoa bakarrik, ez da barria. Leenago be erderean dala eta, betiko euskereak ez ei eban ezertarako balio, gaur egun osteran, batua dala eta, ez ei dau etxeko euskera orrek ezertarako balio. Uste okerra besteko kaltegarria. Ze ori uste izaten dauanak ez deutse, normalean, beraren umeai betiko euskera bizi ori irakatsiko, euskera transmisinoa bete -betean ebagi egiten dauala.

Bizkaiko euskerea benetan aberatsa da. Aberatsa berba eta aditzetan ez eze, esakune, morfologia eta agoskera kontuetan be bada. Aberastasun ori ez da, zoritxarrez, eskoletan eta ikastoletan irakasten. Aberastasun ori norberari gurasoak irakatsita, norberak seme-alabai irakatsikera eutsi leio bakarrik bizirik. Bizkaiko lurralde askotan euskerea egoera terminalean dago, esaterako, Mungialdean, Txorierrin, Uribe-Kostan,..., guraso askok betiko euskerea irakasteari itzi deutsoelako. Uste okerragaitik, Iotsakeriagaitik edo. Umeak eskolan ikasita, aitita-amama edo gurasoai betiko euskerea txarto dagoala esan eta zuzendutea. Au dok itzela! Erderaz jakin ez eta euskeraz txarto egiten dogula? Ikaragarria!

Txorierrikoa (Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu), Gamiz, Fika, Mungiakoa edo Arratiakoa bazara, zerean, ostantzean, semea eta alabea esango dozu. Meñaka, Larrauri, Muxika edo Lekeitiokoa bazara, zerian, ostantzian, semia eta alabia esango dozu. Leioa, Getxo, Berango, Sopena, Urduliz, Gatika, Laukiz edo Jatabekoa bazara, zerean, ostantzean, semea eta alabee esango dozu. Bakio, Bermeo, Gernika, Zornotza, Fruiz edo Bilbokoa bazara, zerien, ostantzian, semie eta alabie esango dozu. Ori guztiori eta geiago oraindikarren, alantxe uste izan ez arren be, geure euskeraren aberastasuna da. Jagon, erbabili eta irakatsi bearrekoa.

Bizkaiko euskerea geure-geurea da eta ez dogu lotsarik izan bear berori egiteko, edonon ta edonoz, agoz zein idatziz. MATRICIn bertan be. Orixe berorixe da nik bertan eskatu gura dodana. MATRICIn bertoko euskerea egitea agoz zein idatziz. Ez da normala bertoko euskaldunen artean geuretik asago dagoan euskera eredu erabiltea. Geureak geuretzako bailo dau, beti balio izan dauan lez. Ez daigun martzianoen euskerea, sano gatz eta geuretzako arrotza dana, geure arteko idatzizko zein agozko artuemonetan egin. Ez da normala norberarena ostu eta basterrean iztea, sano paranoikoa eta anaturala baiño."

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**

* * *

IZKUNTZ

Izkuntz eder bat ba da jakituriz beterik euskoen lurrean,, urrea dariola diño jakintsuak izkien artean. Zer daukazu lur aratz zure errai garbian itza dariona, jakituria al dozu zure biotz barruan zorutzen dabena... Izkuntzajakintsua egiz, maitagarria dau Euskalerrriak, birau zakarrik ez dau ta argia dau gidari euskaldunen miñak.

BASERRIA

Euzko lorea zara mendi ta zelaietan bizia jarrita,, or jaiio izan ziran seme-alaba onak zentzunak zainduta. Zer dozu euzko lurra... zer dozu basetxea zure erraietan... lorerik ederrenak zabaldu dozuz munduan egi omenetan. Nork argitu zinduzan ainbeste lora eder sortzeko zelaietan... poztu zaitetz basen-i... ondo egiña gaitik mundu zabalian.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIKUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera errotan lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!